

Etteratzearen ondorioz jarduera moteldu egin zen arren, **abenduan** hilabete bakar bateko **emaitza onena** lortu zen

Kutxabanken hipoteka berriak 3.500 milioi eurotik gora hazi dira, % 10 gehiago

- **Taldeak Covidaren aurretik bere buruari jarritako helburuen parekoak dira 2020. urtean sinatu diren hipoteka-kontratu berriak**
- **Tipo finko eta mistoaren aldeko eskaria nabarmena da, era honetako maileguak izan baita eragiketa guztien % 81**

2021ko otsailaren 8an. Etteratzeak iraun duen hilabeteetan jarduera-ekonomikoak gainbehera nabarmena jasan duen arren, Kutxabankek hipoteka-maileguetan zeuzkan **helburuak lortuta** amaitu du 2020. urtea.

Ekainean dagoeneko sumatzen zen negozioaren esparru hau apurka-apurka bere onera etortzen hasia zela. Handik aurrera, hipoteken **ekoizpen berria etengabe hazi** da, lehendabizi uztailan errekorrak gaindituz eta, batik bat, **abenduan** inoizko gorakada handiena lortuz, **% 62koa** hain zuzen ere.

Mailegu-hipotekarioen atalean jarduera bizia izan du Kutxabankek, eta guztira **3.535 milioi euro** bideratu ditu negozio-ildo honetara. Kopuru hori aurreko urtearen aldean **% 9,7** handiagoa da. Aipatzekoa da, gainera, hazkundera aurreko bi urteetan hipoteka-maileguek igoera handiak izan ostean lortu dela, **2018an eta 2019an % 20tik gora** hazi baitziren Kutxabanken hipoteka berriak.

Honela, mailegu-hipotekarioen ekoizpen berrian alorreko buruan kokatu da finantza Taldea, eta merkatuan duen **lidertza-izaera** berretsi du, tokian tokiko merkatu-kuotak haztea lortu ondoren.

Gaur egun, Euskadiko hipoteka-merkatuaren **%45** Kutxabankek bereganatzen du, eta batez besteko hori **%10** ingurukoa da Estatuan, sare-kuotarengatik dagokiona baino nabarmen handiagoa.

Sinatu diren kontratu berrietan, orain arte agerikoa zen lehentasunetako bat indartu egin da 2020. urtean. Hau da, geroz eta argiagoa da egonkortasun handiagoa eskaintzen duten maileguak eskatzen dituztela bezeroek.

Izan ere, **hipoteka finkoen edo mistoen** bitartez gerta litezkeen interes tipoen aldaketen aurrean babestea erabaki dute sinatu diren mailegu berri guztien % 81ek. Finkoak edo mistoak izan dira kontratu guztien % **77,5** eta % **3,8**, hurrenez-hurren. Aitzitik, bezeroen % **18,6k Euriborrean oinarritutako** maileguak hautatu ditu, adierazle honek abenduan % -0,497ko gutxiengo historikoa zenbatu eta gero.

Merkatuan dauden eskaintza-hipotekario guztien artean erakargarrienetako bat du Kutxabank Taldeak, bai tipo finkoan nola tipo aldakorrean. Bere adituen ezagutza-maila eta profesionaltasuna merkatuko adierazgarrienetakoak dira, eta online tresnek geroz eta garrantzi handiagoa dute negozio-esparru honetan.

Gainera, 2020ko martxoaz geroztik, Kutxabankek 'Hipoteka Berdea' eskaintzen du. Hipoteka hau energiaren ikuspegitik eraginkorrak diren etxebizitzak eskuratzea errazteko sortu da, alegia, **A edo B kalifikazioa** dutenak erosteko. Merkatuan jarri zenetik, hipoteka-era honen baitan **4.022** kontratu sinatu dira, **792 milioi** euroko balioarekin. Honenbestez, martxoaz geroztik Kutxabankek egituratu dituen **4 hipoteka berritatik 1 'berdea'** izan da, zehatz esanda, hipoteka berri guztien % **26**.